

2. BALOREZKO PROPOSAMENA

Azken urteotan geroz eta jende gehiagok material sendoak erabiltzen diren kirolak praktikatzen dituzte. Normalean gazte jendeak edota familiek produktu hauen beharra izaten dute. Hala ere, badira behar hau izaten duten bi motatako perfila duten biztanleak; batetik, kirol batean espezializatua daudenak. Hauen kasuan, normalean materiala erostea erabakitzen dute, maiz erabiliko dituztelako eta haientzat alokatzea baino errentagarriagoa eta praktikoagoa delako. Bestetik, badira beste asko ez dutela kirol jakin bat askotan praktikatzen eta nahiago izaten dutela noizean behin eskiatzera joatea, adibidez. Arazo honi irtenbidea ematea da gure enpresaren xede. Guri esker, eskia, piraguismoa edota snowboard-a bezalako kirolak sustatzeaz gain, gure bezeroek zerbitzu merke batez gozatzeko aukera izango dute.

Donostia inguruan bizi garen nerabeak izanik, ez dugu enpresarik ezagutzen zerbitzu hau eskaintzen duenik. Badira lekuak kirol bateko materiala eskaini eta alokatzen dutenak: Txuri Urdinen izotzetako patinak, zentroko hainbat dendetan bizikletak, elur pistetan eskiak... baina hauetako inork ez du guk haina material ezberdina eskaintzen lokal berean. Gainera, zerbitzu hauen leku jakin baterako eta epe laburrerako izaten dira; hau da, beraiek zehaztutako gunean bakarrik erabil daitezke eta gehienetan orduka ordaindu behar da hauen erabilera. Beraz, zerbitzu berdintsua eskaini arren, ez da gure bera; eta mota berdineko enpresa bat balitz, ez da oso ezaguna guk ez dugulako inoiz halako ezer entzun.

Jendeari kirol materiala eta arropa merke alokatzeaz gain, kontsumismoa murrizteko aukera izango dugu; hortaz, esan liteke neurri batean, natura babesten duen enpresa iraunkorra dela gurea. Halaber, bezeroek kirol berriak probatzeko aukera izango dute, egun pare baterako ez dutelako material guztia erosiko; eta alokatuz gero, merkeagoa denez, errazago izango delako eta hauek prest egongo direlako esperientzia berriak bizitzeko. Amaitzeko, litekeena da bezeroak materialen kalitatearengatik kezkatuak egotea. Dena den, egunero, denda istean, materialen egoera zein den ikusiko dugu eta baten bat gaizki egotekotan, zuzenean baztertuko genuke. Gainera, hilean behin material berria erosiko dugu, hauen egoera ona ziurtatzeko. Horrez gain, bezero batek konturatu gabe apurtuta edo gabezirenbat duen materiala alokatuko balu, ordaindutako diru kopurua itzuli egingo genioke. Hortaz, prezio-kalitate erlazio aparteko zerbitzua eskainiko dugu eta azken batean hau da gure bezeroak erakartzeko puntu nagusia.